

Haurren Defentsa Erakundeen Europako Sarea

“COVID-19a: etorkizunerako ikasten” adierazpen instituzionala

ENOCen 25. Batzar Orokorrean onartua, 2021eko irailaren 29an.

Etorkizunean, larrialdi publiko bati erantzuna emateko har daitezkeen premiazko neurri guztiak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak (HEH) bermatutako haurren eskubideetan inpaktua eragin badezakete, soilik aplikatu ahalko dira beharrezkoak, proportzionatuak, ez-diskriminatzaileak eta denboran mugatuak badira. Larrialdi neurri guztiak etengabe berrikusi behar dira, eta haurren eta nerabeen eskubideetan edozein inpaktu negatibo saihestea edo murriztea lehentasuna izango da.

ENOCek zinez gomendatzen du Haurren Eskubideen Batzordeak ohar orokor bat eman dezan larrialdi publikoko kasuan haurren eta nerabeen eskubideei dagokienez, etorkizunean haurren eskubideak zaintzea bermatzen laguntzeko.

Bidenabar, ENOCek zinez gomendatzen du aginte publiko guztiek haurren eskubideen ikuspegia txerta dezaten une oro kasuan kasuko funtzioak betetzean, larrialdi publikoko garaietan barne, bermatzeko erakundeen erabaki eta jarduerak HEH hartzen dutela oinarritzat eta haur eta nerabe guztien eskubideak defendatzen dituztela.¹

ENOCen 2021eko adierazpen instituzionalak oinarritzat hartu ditu **“COVID-19aren pandemiari erantzuteko hartutako larrialdi neurriek haurren eta nerabeen eskubideetan izan duten inpaktuaren identifikazioa, ENOCen estatu kideetan”²** azterlana, ENOCen udaberriko mintegian aipatutako estatu kideekin egindako kontsulta eta estatu kideekin *online* egindako kontsulta berria, baita Gazte Aholkularien Europako Sarearen (ENYA) aholkularitza ere. ENYAk COVID-19aren inguruan egindako txosten eta gomendioak eskura daude [hemen](#).

¹ Adierazpen honetan aipatutako haurren eskubideen ikuspegiari buruzko informazio gehiago izateko, ikusi: <https://childrenslegalcentre.wales/resources/> (2021eko irailean kontsultatu zen).

² [ENOC 2021 Txostena COVID 19 Etorkizunerako ikasten](#)

HAURREN ESKUBIDEEN IKUSPEGIA

ENOCek haurren eskubideen ikuspegi baten elkarri lotutako bost printzipio aplikatu ditu ENOCeko estatu kideek COVID-19ari erantzuteko baliatutako larrialdi neurriei buruzko gure ikerketaren emaitzak aztertzeko, eta gobernu aginteei, aginte publikoei eta bestelakoei zuzendutako gomendioen esparru modura, edozein larrialdi publikoren aurrean haurren eta nerabeen eskubideak errespetatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko laguntze aldera. Bost printzipioak honako hauek dira:

- **Haurren eskubideak txertatzea:** haurren eta nerabeen eskubideak erabaki eta ekintza guztien parte izan behar dira. COVID-19ari erantzuteko larrialdi neurriei buruzko ikerketan, ENOCeko kideak zinez kezkatuta ageri dira haurren eta nerabeen eskubideak ez direlako lehenetsi larrialdi neurriak garatu / txertatu zirenean, eta, horren ondorioz, eskubideei modu negatiboan erasan zaielako. Gai bereziki kezagarri bat dago; hain zuzen ere, larrialdi neurrien ondorioz nabarmen murriztu dira indarkeria edo abusuak pairatzeko arriskua daukaten haurrak identifikatzeko aukerak, edo laguntza eta babesteko moduetara sarbidea izateko aukerak.
- **Berdintasuna eta diskriminaziorik eza:** haurrak eta nerabeak modu parekidean tratatu behar dira eta ez dira diskriminatu behar, ezein unetan. Gure ikerketak agerrarazi duenez, hurrek eta nerabeek, populazio talde modura, eta berariazko talde jakin batzuek (bereziki hezkuntza premia bereziak, desgaitasunak, gaixotasun mentalak edo osasun mentaleko arazo arin edo moderatuak dituztenek, tutoretzapean daudenek, asilo edo babes eskatzaileek, banatutako edo dibortzizatutako gurasoen hurrek eta justizia sisteman dauden hurrek), COVID-19ari erantzuteko larrialdi neurrien inpaktu negatiboa pairatzeko arrisku handiagoa izan dute.
- **Ahalduntzea:** hurrek eta nerabeek babesa jaso behar dute haien eskubide guztiak baliatzeko, baita informazioa, baliabideak eta aukerak emanez ere. Gure ikerketak agerrarazi du COVID-19ari erantzuteko larrialdi neurriak aplikatzearen ondorioz (bereziki ikastetxeak eta bestelako hezkuntza erakundeak ixtea), hurrek aukera txikiagoa izan dute haien eskubideak baliatzeko, bereziki hezkuntzarako eskubidea, elkartzeko eta biltzeko askatasunerako eskubidea eta jolas eta aisialdi jardueretan parte hartzeko eskubidea.



European Network of Ombudspersons for Children

- **Haurrek eta nerabeek erabakiak hartzean parte hartzea:** haurren iritzia entzun eta kontuan hartu behar dira zuzenean zein zeharka haiengan eragina daukaten erabakiak hartzeko prozesu orotan. Gure ikerketan, ENOCeko kideak zinez kezkatuta agertu dira oro har hurrei eta nerabeei ez zaielako kontsultatu COVID-19ari erantzuteko larrialdi neurrien inguruan, eta neurriak garatzean ez dutelako parte hartu.
- **Erantzukizuna haurren eta nerabeen aurrean:** gobernuak, aginte publikoek eta sektore pribatuko elkarteek kontuak eman behar dituzte haurren aurrean haien eskubideei erasango dien edozein erabaki eta ekintzaren aurrean. Gure ikerketak argi adierazten du COVID-19ari erantzuteko larrialdi neurriek inpaktu negatiboa izan dutela haurren eta nerabeen eskubideetan. Bestalde, frogatu da ENOCeko estatu kideetan kontuak emateko existitzen diren mekanismoak maiz desegokiak direla haurrek (edo horien ordezkariak) larrialdi neurriak aplikatzea modu eraginkorrean zalantza jartzea ahalbidetzeko. Ikerketak, bidenabar, argi utzi du haurren eta nerabeen eskubideen urraketan jarraipena askotan desegokia dela, esaterako haurren aurkako indarkeriari buruzko daturik ez egotea.

GOMENDIOAK

ENOCek dei egiten die nazioarteko eta Europako erakundeei, estatuei, estatu eta eskualde mailako gobernuei eta tokiko/udal aginteei, baita kasuan kasuko gainerako aginte eskudunei ere, eta sektore pribatuko erakundeei eskatzen die³ jarraian aipatuko diren gomendioak aplika ditzaten etorkizuneko larrialdi publikoei erantzutean haurren eta nerabeen eskubideak errespetatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko.

Haurren eta nerabeen eskubideak gehitzea

1. Haurren eta nerabeen eskubideak gehitzea erabaki legegile, politiko eta aurrekontuetako erabakiak hartzean, une oro erabakiak hartzean lehentasuna izan dezaten, baita larrialdi publikoko garaietan ere.

- a. Bermatzea maila guztietan erabakiak hartzeko ardura duten pertsonen une oro HEHekin bat etorritik jokatzeko dutela, baita larrialdi publikoko garaietan ere.
- b. Bermatzea **Haurren eskubideen gaineko inpaktuaren ebaluazioa** aplikatzen dela (CRIA⁴, Child Rights Impact Assessment ingelesezko siglak) larrialdi neurri, lege eta politika guztietan, haur eta nerabeengan eta, zehazki, desabantaila edo zaurkortasun egoeran dagoen horrelako talderen batean inpaktu negatiboren bat izango duen zehazteko.
- c. CRIA larrialdiko neurriak, legedia eta politika garatzeko prozesuaren parte modura egin behar da; hala, politikari arduradunek modu egokian hartuko dute kontuan ebaluazioa eta ez dute a posteriori aplikatuko dagoeneko hartutako erabakira egokitzeko.
- d. Bermatzea CRIA larrialdi publikoetarako existitzen den edozein planetan egiten dela, edo aurretiazko plan bat garatu eta argitaratzea, ezarriko duena gobernuak eta beste aginte publiko batzuek nola izango duten kontuan eta nola bermatuko duten larrialdi publikoetan HEH erabat beteko dela.
- e. Pertsona gakoak identifikatzea, edo erantzukizun zuzen eta zeharkako erantzukizuna duen taldea ezartzea (esaterako, ministerioen arteko taldea) haurren eta nerabeen eskubideak babestu eta sustatzeko eta kanpo pertsona edo erakunde adituetera jotzeko, esaterako haurtzaroen espezializatutako aholkulariak, adibidez Haurren

³ NBEren Haurren Eskubideen Batzordea, 16 Ohar Orokorra (2013), enpresa sektoreak haurren eskubideetan duen inpaktuari dagokionez estatuen betebeharreri buruzkoa*, CRC/C/GC/16 2013

⁴ Ikusi ENOCeko [Erreferentziatzko Esparru Komuna CRIA aplikatzeko - CRIA aplikatzeko gida](#) Ikusi ere [ENOCen Posizioaren Adierazpena 2020 CRIARI dagokionez](#)

- Defentsa Erakundeak, une oro erabakiak hartzea osatzeko, baita larrialdi publikoko uneetan ere.
- f. Identifikatzea baliabideak nola banatu eta bermatuko diren edozein larrialdi publikoko egoeretan haurren eta nerabeen eskubideak ahal bezainbeste errespetatu, babestu eta betetzea bermatzeko.
 - g. Aurrekontu esleipena gardena dela eta haur eta nerabeengan egingo den gastuaren proportzioa frogatzea bermatzea, une oro, baita larrialdi publikoko kasuetan ere.
 - h. Bermatzea haurren eskubideak babesten dituen legedi kritikoa txertatzea ez dela atzeratuko, larrialdi publikoko garaietan barne.
 - i. Bermatzea arintze neurriak existitzen direla hezkuntza, gizarte arreta, osasun arreta, justizia zibil eta penala, Giza Eskubideen Erakunde Nazionalak (INDH) eta defentsa independentea eskuragarriak, onargarriak, irisgarriak eta kalitate onekoak izateko⁵ haur eta nerabeentzat larrialdi publikoko garaietan.
 - j. Hurrekin lan egiten duten profesional guztien prestakuntza eta inbertsioa bermatzea, indarkeria pairatzen egon daitezkeen haurrak identifikatu eta babesteko.
 - k. Erantzun/berreskurapeneko estrategia guztiek haurrengan eta berariazko taldeetan zein haien eskubideetan duten inpaktua aintzat hartzea (CRIA eta CRIE erabiliz).
 - l. Ziurtatzea inbertsioa egiten dela hezkuntzan, arreta sozialean eta osasun zerbitzuetan (osasun mentala barne), eta bermatzea sektore arteko babesa ematen zaiela haur eta nerabe guztiei, bereziki zaurkortasun egoeran daudenei, egiaztatuz zerbitzu guztiak eskuragarri daudela, onargarriak, irisgarriak eta kalitate onekoak direla larrialdi publikoan zehar.

Berdintasuna eta bereizkeriarik eza

2. Bermatzea maila guztietako erabaki eta ekintzek ez dituztela haurrak eta nerabeak edo berariazko talderen bat negatiboki diskriminatuko, larrialdi publikoko garaiak izan arren.

- a. Une oro haurrak eta nerabeak diskriminatzea eragotziko duten legedia eta politika txertatzea.
- b. Exijitzea neurriak hartzea, baliabide gehigarriak eta laguntza berezia esleitzea barne, edozein larrialdi neurrik haurrengan edo haur edo nerabeen talde zehatzetan diskriminazio inpaktua izatea ezabatzeko edo arintzeko.

⁵ Ikusi NBEren Haurren Eskubideen Batzordea, 15. Ohar Orokorra, osasun mailarik altuenaz gozatzeko haurren eskubideari buruzkoa CRC/C/15/2013, 113-116 paragrafoak, Eskuragarritasun, Irisgarritasun, Onargarritasun eta Kalitatearen esparruaren deskribapen osoa lortzeko.

- c. Mekanismo finkoak ezartzea inpaktuari eta haurren esperientziari buruzko datuak biltzeko (talde desberdinei buruzko datu desglosatuak barne) larrialdi publikoko garaietan eta bermatzea datu egokiak (kuantitatiboak eta kualitatiboak) eskura egongo direla larrialdi neurriak garatzeari forma emateko.
- d. Bermatzea edozein larrialdi publikori buruz eskura dagoen informazioak ez dituela haurrak edo talde jakin batzuk diskriminatzen, larrialdi neurriek landu behar duten "arazo" gisa aurkeztuz.
- e. Bermatzea larrialdi publiko baten inpaktuari edo larrialdi neurriei buruzko ikerketa publiko orok (edo beste azterketa publiko orok) aintzat hartuko duela haurren eta nerabeengan eta haien eskubideetan izandako inpaktua, horien aurkako inpaktu diskriminatzaile ororen arrazoiak barne hartuz.
- f. Larrialdi publiko bati erantzuteko zerbitzuen prestazioetan eta praktikan hobekuntzak egiten direnean, hobekuntza horiek mantendu eta aprobetxatu behar dira, larrialdi publikoaren aurretik existitzen zen egoerara itzuli beharrean.

Haurrak eta nerabeak ahalduntzea.

3. Haurrek eta nerabeek haien eskubideei buruz dakitena eta ulertzen dutena hobetzea, hezkuntzaren eta informazioaren bitartez, haien eskubideak baliatu eta aprobetxatu ahal izateko, larrialdi publikoko garaietan barne.

- a. Bermatzea adin guztietarako haurrentzako ikasketa planetan giza eskubideei, haur eta nerabeen eskubideei buruzko hezkuntza jasotzea, baita eskubide horiek erreklamatu eta baliatzeko mekanismoei dagokienez ere, Haurren Defentsa Erakundeek eskubideak zenbait jurisdikziotan babesteko modua barne.
- b. Arrazoizko neurri guztiak hartzea bermatzeko ikastetxeak (eta bestelako hezkuntza erakundeak) irekita eta haur eta nerabe guztientzat irigarri daudela, eta ikastetxeak ixtea azken aukera izan dadin eta lehenbailehen lehengoratu dadin.
- c. Arrazoizko neurri guztiak hartzea bermatzeko haur eta nerabeek jolasteko eta elkarrekin harremanak izateko erabiltzen dituzten espazioak irekita eta guztientzat irigarri daudela, eta espazio horiek ixtea azken aukera izan dadin eta lehenbailehen lehengoratu dadin.
- d. Ikastetxeak (eta beste hezkuntza zentro batzuk) itxita daudenean, hezkuntza zerbitzu egokituak eskaintzea, etenik gabe eta kalitate altukoak (zerbitzu terapeutikoak eta laguntza zerbitzuak barne), irigarriak haur eta nerabe guztientzat, hezkuntza premia bereziak dituztenentzat ere.

- e. Desabantaila sozialean dauden hurrei lehenetasuna eta babesak ematea, ingurune digitalera modu seguruan eta eraginkortasunez iritsi eta ingurune hori erabiltzeko ezagutzak, trebetasunak, azpiegiturak eta ekipamenduak (esaterako, banda zabala) izateko (zenbait arriskuren inguruan sentsibilizatzea barne, esaterako ziber jazarpena edo sexu esplotazioa)⁶, baita larrialdi publikoko uneetan ere.
- f. Haur eta nerabeei informazio eskuragarria ematea, adin horretarako egokia eta fidagarria (konfiantzazko iturri batena), edozein larrialdi publikori dagokionez, haien erabakiak hartu eta eskubideak baliatzeko aukera izan ditzaten.
- g. Hurrei eta nerabeei informazio irisgarria eta adin horretarako egokia ematea giza eskubideen erakunde independenteei dagokienez, defentsa eta aholkularitza juridiko profesionaleko zerbitzuei dagokienez, eta bermatzea zerbitzu horiek une oro haur guztientzat eskuragarri daudela.

Erabakiak hartzerakoan parte hartzea

4. Bermatzea haurren eta nerabeen iritzia entzun eta kontuan hartuko direla zuzenean zein zeharka haiengan eragina daukaten erabakiak hartzeko prozesu orotan; hala, larrialdi publikoko uneetan erabat kontuan hartuko dira.

- a. Hurrei eta nerabeei laguntzeko⁷ mekanismoak txertatzea, parte hartze nabarmena izan dezaten politika eta legedi oro garatzen, baita larrialdi neurrietan ere.
- b. Bermatzea Haurren Defentsa Erakundeek haurren defentsarako erakunde independente modura jokatzen jarraitu ahal izatea, haien izenean hitz egin eta lan egiteko larrialdi publikoko unetan.
- c. Fisikoki elkartzeko espazioak ez daudenean haur eta nerabeentzat eskuragarri, "espazio birtual" seguruak ezartzea, edozein larrialdi publikotan arazo eta kezka komunak partekatzeko aukera izan dezaten⁸.
- d. Haur eta nerabeei kontsulta egitea larrialdi publiko batean zehar eta ondoren, haien esperientziak oinarri gisa hartu ahal izateko krisiari erantzuteko planen CRIA eta CRIE prozesuetan, baita berreskuratzeko estrategia nazionaletan ere.
- e. Hurrek eta nerabeek funtzio guztietan izan duten parte hartzearen aldizkako ebaluazioa egitea, tinkoa dela bermatzea eta larrialdi publikoko uneetan eskura dagoela ziurtatzea.

⁶ Ikusi [ENOCen Aderazpena, ingurune digitalean haurren eskubideei buruzkoa](#)

⁷ Esaterako, ikus dezagun Lundyren parte hartze eredu: Lundy, L. 'Voice is not enough, conceptualizing Article 12 of the United Nations Convention on the Rights of the Child', *British Educational Research Journal* (2007) 33/6, 937

⁸ Ikusi [ENOCen Aderazpena, ingurune digitalean haurren eskubideei buruzkoa](#)

- f. Jatorri desberdineko haurrek iritziak eta esperientziak eman ahal izateko mekanismoak ezartzea, larrialdi publikoei gobernuen erantzunak osatu ahal izateko.
- g. Aurrekontuetan baliabideak identifikatu eta esleitzea haurren eta nerabeen parte hartze nabarmena babesteko larrialdi publikoko garaietan.

Kontuak ematea

5. Bermatzea gobernuak, maila guztietan, eta erakunde publikoek dagokien erantzukizuna hartuko dutela haien gain une oro haurren eta nerabeen eskubideak betetzeari dagokionez, baita larrialdi publikoko garaietan ere.

- a. Haurren eskubideak gainbegiratzea, horien adierazleei dagokienez eta haurren eta nerabeen eskubideen erreferentziazko estandarrekin konpromisoa hartzea, baita larrialdi publikoko garaietan ere.
- b. Haurren eta nerabeen eskubideen adierazleekiko emaitzei buruzko aldizkako txostenak argitaratzea larrialdi publikoko garaietan, eta emaitzak zabaltzea.
- c. Gainbegiraketa independentea sustatzea (esaterako, Haurren Defentsarako Erakundeek egitea edota haurrak), baita larrialdi publikoko garaietan ere.
- d. Bermatzea Haurren Defentsarako Erakundeek jarrai dezaketela gobernuei exijitzen haurren eta nerabeen eskubideak errespetatu, babestu eta betetzea, baita larrialdi publikoko garaietan ere.
- e. Bermatzea haurrak bizi diren tokietako erakunde guztiei (esaterako, harrera araubidean, legearekin gatazkan dauden gazteak, asilo eta babes eskatzaileak, desgaitasunak dituzten haurrak, gaixotasun mental konplexuak dituztenak, eta abar) etengabeko jarraipena egingo zaiela haurren eskubideen adierazleei dagokienez, bereziki larrialdi publikoko garaietan.
- f. Bermatzea familiek, haurren ongizaterako eta hazteko ingurua den aldetik, beharrezko laguntza eta babesa jasotzen dutela larrialdi publikoen kasuan.
- g. Hurrei eta nerabeei haien adinerako informazio egoki eta eskuragarria eskaintzea erreklamazioak aurkezteko prozesuari dagokionez (eta Haurren Defentsa Erakundeen betebeharrari dagokionez), eta bermatzea prozesua irisgarria eta egokia dela haurrentzat haien eskubideak sustatu eta babesteko, eta eskuragarri egoten jarraitzea larrialdi publikoko momentuetan.
- h. Hurrei eta nerabeei haien adinerako egokia den informazio irisgarria ematea, haien eskubideak urratzeari dagokionez gobernuak eta aginte publikoek kontuak emateko prozesuari buruzkoa, eta konpentsazioa lortzeko moduari buruzkoa



European Network of Ombudspersons for Children

(eskuragarri dagoenean); bidenabar, bermatzea prozesu horiek haurrentzat egokiak eta moldatuak izatea, eta larrialdi publikoko uneetan eskuragarri egoten jarraitzea.



ENOCek Europar Batasuneko Eskubide, Berdintasun eta Hiritarren Programaren finantzaketa jaso du (REC 2014-2020). Argitalpen honen edukiak soilik ENOCen iritzia jaso du, eta erantzukizuna esklusiboki berea da. Europako Batzordeak ez du inolako erantzukizunik onartuko hemen bildutako informazioaren inguruko erabilerengatik.